

Jakinarazpena, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuko irakasle guztiendako educacion.navarra.es (PNTE Apps) kontuak sortzeari dagokionez

Zuzendariarentzat.

PNTE Apps proiektuan aurrez ikusitako garapena aplikatuz (ikus xehetasun gehiagotarako <http://www.educacion.navarra.es/web/pnte-apps> orria), 2013ko otsailaren 22an PNTE Apps kontuak eratu eta aktibatu zaizkie Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetan lan egiten duten irakasle guztiei.

Hemendik aitzina, **educacion.navarra.es** domeinuko posta elektronikoko kontuak kontu profesional modura hartuko dira eta, beraz, irakasleek erabili beharko dituzte Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren mendeko unitate, zentro eta zerbitzu guztiekin komunikatzeko.

Ekintza honen ondorioz, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren mendeko irakasle guztiek ondoko aplikazio eta zerbitzuak erabiltzen ahalko dituzte **educacion.navarra.es** domeinuan:

1. Gmail posta elektronikoko kontuak.
2. Dokumentuak eta fitxategien biltegiratzea Google Docs/Driven.
3. Google Calendarreko egutegiak.
4. Google Groupseko posta-taldeak.
5. Google Sitesko webguneak.
6. Argazkien biltegiratzea Picasan.
7. **educacion.navarra.es** domeinuan jadanik aktibaturik dauden edo etorkizunean aktibatuko diren Google Appseko beste zerbitzu batzuk.
8. Google Appsekin zerikusirik ez duten bestelako aplikazio eta zerbitzuak, gaur egungoak eta etorkizunekoak, baina **educacion.navarra.es** domeinuan posta kontuetara estekaturik egon daitezkeenak: irakasleendako blogak PNTEren Multiblog plataforman, PNTEren ikasgela birtualera sartzea Moodlen, etab.

Atzealdean daude PNTE Appseko kontuak kudeatzeko jarraibideak, bai jadanik aktibaturik dituzten irakasleendako, bai estreinakoz zerbitzu honetan sartzen direnendako.

Ohar hau oso garrantzitsua denez, erregutzen dizugu ahalik eta hedapenik handiena eman diezaiozun.

Iruñean, 2013ko otsailaren 28an.

Stua.:

Íñigo Huarte Huarte, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia

educacion.navarra.es (PNTE Apps) aplikazioetan sartzeko jarraibideak

PNTE Appseko zerbitzu eta aplikazioetan sartzerakoan, bi egoera izan ditzakegu.

1. PNTE Appseko kontuak 2012ko irailetik aktibaturik dituzten irakasleak.

Irakasle hauek <http://mail.educacion.navarra.es> orrian sartu behar dute eta han idatzi PNTEko posta elektronikoko kontuko erabiltzaile izena eta pasahitza. Kautotu ondoren, aplikazio guztiak eskura izanen dituzte.

2. PNTE Appseko kontuak 2013ko otsailean aktibatu dizkieten irakasleak (erabiltzaile berriak).

Estreinakoz zerbitzu honetan sartzen diren irakasleek aurretik tramite bat bete behar dute, horretarako sortutako pasahitza aldatu behar dute, alegia. Ondokoa egin behar dute:

1. Firefox nabigatzailearekin Educa aplikazioan (<https://educages.navarra.es>) sartu eta idatzi erabiltzaile izena eta pasahitza.
2. Sakatu orrialdearen goialdean dagoen "Datu pertsonalak" loturan.
3. Ateratako orriaren behealdean egin klik "Pasahitza aldatu" loturan. Pasahitz honi dagokionez, zenbait xehetasun izan behar dira kontuan:
 - PNTE Appseko kontuak ofizioz sortzen direnean, kontu horiek ausazko pasahitza dute, erabiltzaileak asmatzerik ez duena. Pasahitz hori Educatik aldatzen ez bada, ezin da sartu posta elektronikoko kontuan eta gainerako aplikazioetan.
 - PNTE Appseko pasahitza eta Educarena ez dira berberak eta ez dute zertan izan. Izan ere, gomendagarria da bi zerbitzuetarako pasahitz desberdinak erabiltzea.
 - Educaren PNTE Appseko konturako sartutako pasahitzak gutxienez zortzi karaktere izan behar ditu, letrak eta zenbakiak nahasirik.
4. Pasahitzaren aldaketa arrakastaz osatzeko, beharrezkoa da <http://mail.educacion.navarra.es> orrialdean sartzea eta eskatutako datuak kautotzea; honako hauek:
 - Erabiltzaile izena: posta elektronikokoaren helbidean a bilduaren zeinuaren aurretiko letra eta zenbakien sekuentzia.
 - Pasahitza: 3. urratsean zehaztutakoa.
5. Onartu zerbitzuaren baldintzak.

Irakasleren batek ikusten badu bere PNTE Appseko kontua ez dagoela eskuragarri, ondokoa egin behar du:

- Eskatu bere ikastetxeko Educako kudeatzaileei PNTE Appsen alta emateko.
- Eskatu PNTEkoei PNTE Appsen alta emateko. Horretarako, dei daiteke 848-426348 edo 848-426347 telefonoetara, edo idatzi ayuda@educacion.navarra.es posta elektronikora.

PNTE Appseko kontuak erabiltzeko baldintzen gaineko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus ondoko orria: <http://www.educacion.navarra.es/web/pnte/terminos-del-servicio>.